

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Guk bi helburu ditugu enpresa bezala; batetik, kalitatezko produktua eskaintzea, eta bestetik bezeroen konfiantza eta fideltasuna lortzea. Behin fideltasun hori lortuta inoiz ez bezala zainduko ditugu. Baina lehenengo, nola lortuko dugu jendea gure marka ezagutzea?

Idea lantzen hasi ginenetik argi geneukan marketin on bat egin beharko genukeela, azkenean gure produktua ez delako hain erakargarria, eguneroko gauza bat delako eta jendea pentsatu dezake ez duela merezi gure produktua erostea. Baina demostratuko dugu hori ez dela horrela!

Proiektuaren hasieratik esan dugunez, moda asko gustatzen zaigu, eta gure produktua jendearengana heltzeko, produktua sortu berri dagoenean, moda desfilea egitea pentsatu dugu. Zentro komertzial ezberdinetan izango dela argi dugu. Ekitaldi honetan, edonor sartu ahalko da, baina limite bat egongo da. Influentzerrak gonbidatuko ditugu armairua promozionatzeko eta jende gehiagora heltzeko. Desfilean, armairutik ateratzen joango dira modeloak, eta desfilea amaitzean jendea armairua gertutik ikusi ahalko du, eta probatu ahal izango du.

Lehenengo ekitaldia egin eta gero, eta jendea gure marka ezagutzean, gure proiektua, marketinaren eta iragarkien bidez promozioen bidez publizitatuko/ezagutzera emango dugu* batez ere, jendeak zenbait lekuetan ikusi ahalko du, hala nola, San Mames, Spotify... eta kanpainen bidez batik bat. Sare sozialetan, ekintza batzuk egingo ditugu: lehiaketak, bideoak igo esperientziekin, armairuak emandako look ezberdinekin, influenceren batek egunero igo bideoren bat armairua emandako look-arekin.

Marketin estrategiak alde batera utzita, lehen esan bezala, gure bezeroak ondo zainduta edukiko ditugu eta gure harremana haiekin ezin hobea izango da. Bezeroekin izango dugun harreman motak honako hauek dira:

Hasteko, salmenta pertsonala, gure denda fisikoa izango dugulako bezeroak nahi duten tamaina aukeratzeko edo ikusteko. Dendan, leku bat izango dugu armairu pertsonalizatuak ere egiten ditugulako, beraz, hor laguntza pertsonal eskainia sartzen da, bakoitzak neurria eta diseinua aukeratzeko aukera izango du.